

I. ERANSKINA
ARLOAREN EDO IRAKASGAIAREN URTEKO PROGRAMAZIO DIDAKTIKOA
EGITEKO TXANTILOIA
ANEXO I
PLANTILLA PARA LA ELABORACIÓN DE LA PROGRAMACIÓN DIDÁCTICA
ANUAL DE ÁREA O MATERIA

2016-17 Urteko/ikasturteko programazio didaktikoa
Programación didáctica anual/de curso 2016-17

ikastetxea: <i>centro:</i>	IES URIBE- KOSTA BHI	kodea: <i>código:</i>	015143
etapa: <i>etapa:</i>	BIGARREN HEZKUNTZA	zikloa/maila: <i>ciclo/nivel:</i>	4
arloa/irakasgaia: <i>área / materia:</i>	GEOGRAFIA ETA HISTORIA		
osatutako arloak/irakasgaiak <i>materias integradas/ áreas</i>	Hizkuntza eta Literatura arloa, Gaztelania eta Literatura arloa, Musika, Plastika ,IKT		
diziplina barruko oinarriko kompetentzia elkartuak <i>competencias disciplinares básicas asociadas</i>	<p><u>e) Gizarterako eta herritartasunerako kompetentzia.</u></p> <p>Nork bere burua, bere taldea eta bere mundua ulertzea, gizarte-zientzien ezaupideak eskuratuz, kritikoki interpretatuz eta erabiliz, eta haien prozedurak eta metodologiak baliatzea, bizitzako ohiko egoeretan modu autonomoan jarduteko, herritar gisa, eta, hartara, gizarte guztiz demokratiko, solidario eta inklusibo bat garatzen laguntzeko.</p> <p><u>f) Arterako kompetentzia.</u></p> <p>Hainbat kultura- eta arte-adierazpen ulertzea eta kritikoki baloratzea, garai eta erabilera aniztetakoak, faktore estetikoek pertsonen eta gizarteen bizitzan duten garrantziaz ohartzeko. Artearen hizkuntzak ezagutzea eta haien kodeak erabiltzea mezu artistikoak sortzeko eta haien bidez adierazteko eta komunikatzeko, ekimena, irudimena eta sormena erabiliz.</p>		
irakasleak: <i>profesorado:</i>	EBA ELGEZABAL ARRUTZA	ikasturtea: <i>curso:</i>	2016-2017

Zeharkako kompetentziak / *Competencias transversales:*

1. **Hitzez, hitzik gabe eta modu digitalean komunikatzeko kompetentzia**

Hitzezko eta hitzik gabeko komunikazioa eta komunikazio digitala modu osagarrian erabiltzea, ganoraz eta egoki komunikatu ahal izateko egoera pertsonal, sozial eta akademikoetan.

2. **Ikasten eta pentsatzen ikasteko kompetentzia**

Ikasteko eta lan egiteko ohiturak, ikasteko estrategiak eta pentsamendu zorrotza izatea, eta ikasitakoa mobilizatzea eta beste testuinguru eta egoera batzuetara eramatea, norberaren ikaskuntza modu autonomoan antolatzeko.

3. Elkarbizitzarako konpetentzia

Pertsonen arteko, taldeko eta komunitateko egoeretan elkarrekikotasunez parte hartzea, eta norberari aitortutako eskubideak eta betebeharrak besteri aitortzea, norberaren zein guztion ongirako.

4. Ekimenerako eta ekiteko espiriturako konpetentzia

Ekimena izatea eta ekite-prozesua erabakitasunez eta eraginkortasunez kudeatzea testuinguru eta egoera pertsonal, sozial, akademiko eta lanekoetan, ideiak ekintza bihurtzeko.

5. Izaten ikasteko konpetentzia

Bizitzan zehar agertzen diren sentimendu, pentsamendu eta ekintza pertsonalez gogoeta egitea eta haien sendotzea edo egokitzea, haien gaineko balorazioaren arabera, bere burua etengabe hobetuz pertsona osorik errealizatzeko.

helburuak <i>objetivos</i>	ebaluazio-irizpideak <i>criterios de evaluación</i>
<p>1) Pertsona bakarrak eta konplexuak direla ohartzea, eta zer gaitasun eta muga dituzten jakitea. Orobat, ohartzea zer kultura-ezaugarri direla-eta diren euskal gizarteko kide, beste talde batzuetako kide izateko aukera eragotzi gabe. Horren helburua da nork bere nortasun zehaztua eta onartua izatea, gizartean modu aktiboan eta konpromisoz parte hartzeko.</p> <p>2) Ingurune fisikoaren bereizgarri diren oinarrizko elementuak ingurune hurbiletik abiatuz identifikatzea eta kokatzea zenbait eskalatan eta elementu horien elkarreraginei erreparatzea, ulertzeko gizakion bizitza nola baldintzatzen duten eta, aldi berean, gizakiak nola eraldatzen dituen. Horren helburua da gizakiaren ekintzak zer gizarte-arazo eta ingurumen-arazo sortzen dituen ikustea eta horretaz kontziente izatea.</p>	<p>1) Euskal Herriko, Espainiako, Europako eta munduko aro garaikideko gertakari eta prozesu historikoak denboran eta espazioan kokatzea, eta historia aztertzeke tresna egokiak erabiltzea.</p> <p>1.1. Ea ezagutzen, aztertzen eta alderatzen dituen iraupen eta erritmo desberdina izan dituzten bilakaera prozesuak eta aldaketa historikoak</p> <p>1.2. Ea Euskal Herriko lurralde historikoetan bizi izandako gorabehera historikoen ezaugarri nagusiak deskribatzen dituen, munduko eta Europako historien testuinguruan.</p> <p>1.3. Ea antzematen dituen, aldiberekotasun eta aldaketa nozioak, eta garai batetik beste batera pasatzean izaten diren uneen eta prozesuen ezaugarriak. Halaber, ea nozio horiek guztiak aplikatzen dituen XVIII. mendetik gaurdainoko bilakaera historikoa adierazteko.</p> <p>2) Gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuen arrazoiak eta ondorioak identifikatzea, haien artean loturak egitea, eta gizarte-gertaerek hainbat arrazoi izan ditzaketela ohartzea.</p>

3) Identifikatzea zein izan diren Euskal Herriarentzat gertaera eta prozesu historiko garrantzitsuenak, direla tokikoak, direla esparru zabalagoak, eta denboran eta espazioan kokatzea. Horren helburua da gizateriaren bilakaeraren ikuspegi propioa eta globala izatea eta aldaketak eragiteko gaitasunari buruzko kontzientzia kritikoa izatea.

4) Datu historikoak biltzea, zenbait irizpide erabiliz: denboran orientatzekoak (iragana, oraina eta etorkizuna); denbora-posizio erlatiboak (segidakoak, aldiberekoak, diakronia, sinkronia); iraupena (faktikoa; koiunturala; egiturazkoa; iraupen laburrekoa, ertainekoa edo luzekoa); denbora-neurriak (denbora-unitatea, denbora eta kronologia historikoa). Horren helburua da gizartearen bilakaera historikoa ordenatu eta sintetizatzea.

2.1. Ea sailkatzen eta erlazionatzen dituen gertaera edo prozesu historikoak eragiten dituzten arrazoiak.

2.2. Ea zehazten dituen gertaera historiko bat sortzea eragiten duten arrazoiak epe laburrera eta luzera dakartzaten ondorioak.

2.3. Ea dakien gertaera historikoak interpretatzen eta erlazionatzen.

2.4. Ea identifikatzen duen gertaera historiko baten edo gaur egungo gertaera baten kausa-ondorio erlazioa.

2.5. Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko gai den XVIII. eta XXI. mendeen arteko epean aztertzen ari garen lurralde eremuetan izandako edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsuren arrazoiak eta ondorioak.

3) Azaltzea Europak zergatik izan zuen protagonismoa XIX. mendeko bigarren zatian, eta urte horietako gatazka eta arazo nabarmenak bereiztea; batez ere, hedapen kolonialarekin eta tentsio sozial eta politikoekin lotutakoak.

3.1. Ea ezagutzen dituen Antzinako Erregimenaren garaiko gizartearen ezaugarri nagusiak.

3.2. Ea antzematen dituen XVIII. mendean gertatutako aldaketak, eta dakien deskribatzen Espainiako despotismo ilustratuaren berezko izaera zentralizatzailea eta erreformista.

3.3. Ea ezagutzen eta ulertzen dituen despotismo ilustratuaren eta borboitarren erreformen berezitasunek Euskal Herrian eragin zituzten ondorioak: aldaketa sozioekonomikoak, gizarte-krisiak, merkataritzaren gorakadak, etab.

4) Europako testuinguruan, XIX. mendearen bukaeratik aurrera, Euskal Herriko eta Espainiako bilakaera historiko, politiko eta ekonomikoaren etapak zein izan ziren eta zer ezaugarri dituzten jakitea, eta sistema demokratikoa finkatu izana eta Europar Batasuneko kide izatea balioestea.

5) Ondare naturala, kulturala, linguistikoa, artistikoa, historikoa eta soziala, norberarena zein bestearena, aintzat hartu eta errespetatzea, eta norbanakoek zein herriek beren identitatea izateko duten eskubidetzat jotzea. Eta hura babestu, kontserbatu eta hobetzeak dakarren erantzukizuna onartzea, nork bere esparrutik gizateriaren garapenean laguntzeko, dela modu indibidualean dela modu kolektiboan.

6) Gizarte demokratikoez zer antolaketa eta funtzionamendu duten jakitea, eta haien oinarri diren oinarrizko balioak eta printzipioak zein diren jakitea. Eta giza eskubideak erreferente unibertsal moduan erabiltzea norberaren bizitzako eta gizarte-bizitzako ekintzei eta egoerei buruzko iritzia sortzeko. Orobat, eskubideak urrututa dituzten edo beharrezkoak diren baliabide ekonomikoak ez dituzten herriekin, gizarte-taldeekin eta pertsonekin solidarioak izatea eta jarrera eta egoera baztertzailak eta bidegabeak salatzea. Horren helburua da gizarte demokratikoetan modu kontziente, arduratsu eta kritikoa parte hartzea.

4.1. Ea ezagutzen dituen Industria Iraultza eragin zuten faktoreak; ea aintzat hartzen dituen Industria Iraultzak ekoizpenean eragin zituen aldaketak; eta, Europan barrena aldi berean ezarri ez zenez, ea erritmo desberdintasuna hautematen duen.

4.2. Ea diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzen duen Industria Iraultzarekin zerikusia duen edozein gertaera, fenomeno edo prozesu historiko garrantzitsu honako lurralde eremu hauetan : Euskal Herrian, Espainian eta Europan.

4.3. Ea aztertzen dituen garai hartako zenbait gertaeraren jatorriak, ondorioak eta gaur egun oraindik ere eragiten dituzten ondorioak; esaterako, industrializazioarenak, burgesen iraultza liberalenak eta Euskal Herriko sozialismoaren sorrerarenak.

5) XX. mendean munduan izan diren eraldaketak eta gatazkak denboran eta espazioan kokatzea, eta historiaren jakintza hori gaur egungo nazioarteko arazo nagusietako batzuk ulertzeko erabiltzea.

5.1. Ea ezagutzen duen inperialismoaren garaiak irauten bitartean Europak munduan izan zuen protagonismoa azaltzeko gertaera garrantzitsuenak zein diren.

5.2. Ea ezagutzen duen kolonialismoa hedatzeak nazioarteko harremanetan zein herrialdeetan beretan zer ondorio zituen

5.3. Ea dakien XIX. mendearen bigarren erdialdean izandako gertaera politikoak eta ekonomikoak Europako herrialdeetako gaur egungo alderdi asko azaltzeko baliagarriak direla, eta baita herrialde kolonizatuetako alderdi asko azaltzeko ere, zenbaitetan, gertaera haiexek izan baitziren herrialde horietako egungo arazoaren iturri.

6) Munduan gaur egun tentsio politikoa edo soziala bizi duen guneren bati buruzko lan bat planifikatu eta egitea, bakarka edo taldean, eta haren aurrekari historikoak eta zergatiak aztertzea eta zer

7) Europar Batasunaren antolakuntza politikoaren eta erakundeen funtzionamenduaren berri izatea, jakitea funtsezko zer balio eta printzipio dituzten oinarri, eta haren gabeziak kritiko izatea, arrazoituz. Helburua da ulertzea Europar Batasuna Europako herrien, estatuen eta eskualdeen harremanetarako eta parte-hartzerako eremua dela, eta beharrezkoa dela hobeto funtzionatzea.

8) Gaur egungo gizartearen arazoak zein diren jakitea, haien jatorri historiko-sozialak aztertzea, eta errealitateak eta egoerak aztertzea. Horren guztiaren helburua da haiekiko iritzi pertsonal kritikoa eta arrazoitua izatea, eta ekintza alternatibo eraginkorrak sustatzea eta abian jartzea, zenbait eskalatan, pertsonen arteko eta gizarte-taldeen arteko harremanak hobetzeko eta baliabide naturalak arduraz erabiltzeko.

9) Gizarte-fenomenoak zuzentzen dituzten prozesuak eta mekanismoak zein diren jakitea, eta gertaera sozialen, politikoaren, ekonomikoaren eta kulturalen arteko loturak aztertzea. Ezagutza hori gaur egungo gizartearen bilakaera azaltzen duten

gerta daitekeen iragartzea. Hori guztia informazio-iturri egokiak baliatuz, eta besteak beste, bestelako interpretazioak edo interpretazio osagarriak ematen dituzten iturriak erabiliz egitea.

6.1. Ea gai den XIX. mendearen bukaeraz geroztik gaurdaino euskal eta espainiar gizarteek izan dituzten aldaketa nagusiak (demografikoak,ekonomikoak,sozialak,politikoak eta ideologikoak) deskribatzeko, eta , era berean, elkarri eragindako zenbait ondorio azaltzeko ere.

6.2. Ea ezagutzen dituen XX. mendean trantsizio garaira arteko Espainiako aldi politikoen arrazoi eta ezaugarri nagusiak.

6.3. Ea ezartzen duen Espainiako aldaketa politikoen eta Euskal Herriko bilakaera historikoaren arteko lotura (aurrerapenak eta atzerakadak askatasunen ibilbidean)

7) Kritikoki aztertzea kide den eta erreferentzia dituen talde eta erakundearen (familia, eskola, herri, autonomia-erkidego, estatu eta gainerakoaren) antolaketa-egitura eta ohiko funtzionamendu modua, eta behar bezala aplikatzea demokraziaren funtzionamendua arautzen duten oinarrizko irizpideak.

7.1. Ea ezagutzen dituen XX.mendean nazioartean izandako gertaera nagusiak; esate baterako,iraultza sozialistak,mundu-gerrak eta koloniek independentzia lortzea.

7.2. Ea irudikatzen eta azaltzen ikasi duen XX.mendean gertatutako mundu arazoren batekin zerikusia duten aldaketa prozesuak; eta horretarako, besteak beste, ea diagramak, denbora-ardatzak,kronologia-koadroak, kontzeptu mapak eta hormako mapak erabiltzen dituen.

7.3. Ea gai den diakronikoki eta sinkronikoki deskribatzeko XX. mendean gertatu eta mundu

kausak askotarikoak direla ulertzeko oinarria izango da, eta Historiaren ikuspegi arrazoitua eta kritikoa edukitzeko. Azken helburua herritar moduan gizartea hobetzeko ekintzak abian jartzea izango da.

10) Gizarte-zientzien bereizgarri diren kontzeptuzko baliabideak, teknikak eta lan-prozedurak aplikatzea, eta arloko lexikoa erabiltzea zehatz eta zorrotz. Horrenbestez, lan monografiko txikiak eta ikerketak egingo dira, banaka zein taldeka, Euskal Herriaren, hurbileko eremuen eta munduaren jatorriaz eta bilakaera historikoaz ikertzeko.

11) Talde-lana egitea eta eztabaidetan eta debateetan parte hartzea jarrera konstruktiboa, irekia, arduratsua, kritikoa eta tolerantzia izanda eta iritziak eta proposamenak behar bezala arrazoituta. Orobat, desadostasunak eta

osoan eragina izan duen aldaketa sozial, ekonomiko edo politiko handi bat.

7.4.Ea ezagutzen dituen Bigarren Mundu Gerraren amaieran sortu zen bloke-sistemaren ondorioak, baita bloke horiek desagertzearen ondorioz sortutako mundu ordena berriaren ondorioak eta sozialismoaren inguruko herrialdeetan gertatutako aldaketen ondorioak ere.

7.5. Ea balioesten duen nazioarteko erakundeen zeregin historikoa, NBERena bereziki, baita egungo zeregina ere.

8) Pertsonen arteko, taldeen arteko eta herrialdeen arteko gatazka sozialak zorrotztasunez eta enpatiarako gaitasunez aztertzea, haiek aurrerapenerako aukera moduan ikustea, eta gatazkak konpontzeko bide baketsuak proposatzea.

8.1. Ea bere inguruko egoera bat aukeratu eta hura aztertu eta ikertzen duen ; ea egoera horren aurrekariak eta hura eragin duten arrazoiak bilatzen dituen, eta izan ditzakeen ondorioak logikaz azaltzeko aplikatzen duen ikasitakoa.

8.2. Ea ekimenik duen lana planifikatzeko eta bere gisara zenbait informazio-iturritara jotzeko.

8.3.Ea informazioa lortzeko zenbait iturri historikotara jotzen duen, bai idatziak, bai ahozkoak eta/edo materialak, komunikabideak (prentsa, telebista, zinea, etab) eta IKT barne; halaber, ea bereizten dituen gertaera historiko edo sozial berari buruz emandako hainbat interpretazio.

8.4. Ea zorrotz eta objetiboki interpretatzen dituen eduki historikoko informazio -iturri historikoak eta egungoak; esate baterako, komunikabideetako agiriak, lehen mailako iturriak, posterrak eta artelanak.

8.5. Ea dakien izaera historikoko testu erraz baten iruzkina egiten eta testuaren ideia nagusiak

elkarrizketa gizakien ateko gatazkak eta gatazka sozialak konpontzeko bidea dela ikusi beharko dute, eta taldeko lan-teknikak landuko dira, bai sormenezko lorpen komun bat izateko, bai eta pertsonaren eta taldearen elkarrekintza nagusi den gizartean egoki txertatzeko ere.

12) Informazio geografikoa eta historikoa lortzea. Horretarako, ahozko informazioa, informazio grafikoa, ikono bidezkoa, estatistikoa eta kartografikoa planifikatu, aukeratu eta erlazionatu behar dute (informazioa hainbat iturritatik lortuko dute, komunikabideak eta informazioaren eta komunikazioaren teknologiak barne). Informazio hori laburbildu egingo dute, eta lortutako emaitzak besteei modu antolatuan eta ulergarrian azaltzen jakin behar dute.

ateratzen, eta baita ere asmatzen egileak zer helburu zuen testua idatzi zuenean.

8.6. EA ondo informatuta egoteko gogorik eta jakin-minik duen; eta komunikabideetako eta sareko informazioaren eta mezuen aurrean jarrera kritikoa duen.

9) Arte-adierazpen garrantzitsuenak ezagutzea eta balioestea, bai bere ingurune hurbilekoak, bai eta urrunagokoak ere, kultura guztiak gizateriaren garapen artistikoari zer ekarpen egin dioten aztertzea, eta horren ondorioz sortutako munduko ondare artistikoa babestu egin behar dela ulertzea.

9.1. Ea interpretatzen dituen artelanak eta objektu artistikoak, eta haien garaiko testuinguru orokorra eta egilearen nondik norako bereziak kontuan hartzen dituen.

9.2. Ea kultura eta garai historiko nagusietako artelan aipagarrienak alderatu eta kronologikoki kokatzen dituen.

8.3. Ea zeinahi gizarteen kultura eta arte adierazpenak balioesten eta errespetatzen dituen, eta ea dakien norberaren pretakuntzarako garrantzi handia dutela.

10) Gaur egungo auzi batzuei buruzko eztabaidetan parte hartzea, haietan gizarte-zientzietan oinarritutako iritzi arrazoituak ematea, eta gainerako pertsonen iritziak errespetatzea.

10.1. Ea zenbait gertaera historikori buruzko hipotesirik proposatzen duen.

10.2. Ea gertaera historiko jakin batzuen aldeko eta aurkako jarrerak arrazoitzen dituen.

10.3. Ea elkarrizketa eta prozedura bakezaleen alde agertzen den pertsonen, taldeen eta herrialdeen arteko gatazkak konpontzeko.

11) Kultura-aniztasuna herriek eta norbanakoek beren identitaterako duten eskubide moduan ikustea, kide den gizarte- eta kultura-komunitateen

	<p>aniztasuna balioestea eta haietan parte aktiboa izatea, jarrera tolerantea eta errespetuzkoa duela.</p> <p>11.1. Ea baloratzen dituen adierazpen kulturalak eta artistikoak (herrikoiak zein akademikoak)</p> <p>11.2.Ea errespetatzen dituen kultura desberdinetako arte adierazpenak</p>
--	--

EDUKIEN SEKUENTZIA [denbora-tarteka, unitate didaktikoak, proiektuka, ikaskuntza-nukleoka edo beste moduren batera antolatuta...].

SECUENCIACIÓN DE CONTENIDOS [organización en períodos, unidades didácticas, proyectos, núcleos de aprendizaje].

- 1. multzoa. Ikasgai guztietan eta ikasgai honetako eduki multzoetan komunak diren oinarrizko zehar-konpetentziekin lotutako edukiak daude.
- 2. multzoa. Egungo gizartearen oinarri historikoak.
- 3. multzoa. XX. eta XXI. mendeetako gatazka handiak.
- 4. multzoa. Gaur egungo mundua.
- 5. multzoa. Antolaketa politikoa eta espazio geografikoa.
- 6. multzoa. Artea, kultura eta zientzia gaur egun. Komunikabideak.
- 7. multzoa .Gai bakoitzeko eta talde bakoitzean ikasleek Hiztegi propioa sortuko dute lan kooperatiboan site berezi bat sortuz.

Talde handian hitz guztiak batu ondoren ikasle bakoitzari egokituko zaizkion hitzen esanahia eta hitzarekin erlazionatutako irudi bat aurkitu beharko da gero denon artean osatuko den site bat sortzeko.

- ...**Lehenengo Ebaluaketa**

- 1. XVIII.mendea.Ilustrazioaren garaia
- 2.Iraultzen aroa (1770-1871)
- 3.Industria Iraultza
- Espainiako Antzinako Erregimenaren krisia

- ... **Bigarren Ebaluaketa**

- Inperialismoa eta Lehen Mundu Gerra
- Gerren arteko aldia eta II.Mundu Gerra
- Espainia Errestaurazioa eta Gerra Zibila
- Deskolonizazioa.Munduko geopolitika berria (1945-1991)
-

- ... **Hirugarren Ebaluazioa**

- Espainia Francoren diktadura
- Gaurko mundua.Harremanak eta gatazkak
- Gaur egungo mundua. Globalizazioa eta aniztasuna.
- Espainia.Trantsizio politikoa eta demokrazia.

METODOLOGIA [edukien antolaketa, jarduera motak, baliabide didaktikoak, ikasleen taldekatzeak, espazioen eta denboren antolaketa, irakasleen eta ikasleen eginkizuna... ikuspegi inklusibo batetik].

METODOLOGÍA [organización de contenidos, tipo de actividades, recursos didácticos, agrupamiento del alumnado, organización de espacios y tiempos, papel del profesorado y el alumnado desde una perspectiva inclusiva].

- Gaiaren ahozko azalpena .Garairen kontextualizazioa , kontzeptuen azalpena eta gertakarien sekuentziaren azalpena.
- Gelako IKT errekurtsoak erabiliz, arbel digitalaren laguntzaz azalpenak eman
- Ahozko eta idatzizko ulermenak zuzenak diren jakiteko ahozko azalpenen ondoren irakaslearen galderei erantzunak eman, unitate didaktikoa azpimarratu eta eskemak egin
- Testuak, grafikoak, lerro historikoak eta mapa kontzeptualak erabili ahozko eta idatzizko adierazmena indartzeko
- Classroom en bitartez etxean ikasteko edo/eta indartzeko neurriak ipini.
- Hiztegia landu Site bat sortuz (lan kooperatiboa erabiliz).
- Ikasgai bakoitzarekin Hiztegia lantzeko Chrome book gelan lan egin
- Saio batzuetan ikasleen taldekatzea aldatuko da elkar laguntzeko eta lan kooperatiboa indartzeko.
- Testuak, grafikoak, mapak, arte lanak edo prentsa artikulua iruzkindu.

BALIABIDEAK

Baliabide Analogikoak

Testu liburua : **“Geografia eta Historia.DBH 4.” Anaya-Haritza.Arg.**

Hiztegiak , Atlas fisiko-politiko zein historikoak, Mapa mutuak , Egunkari eta aldizkarietako artikulua , apunteak, kontzeptu mapak ,...

Baliabide Digitalak

Ikastetxeko IKT baliabideak erabiliz :

Netbook eta arbela digitala

Google apps-ek eskainitako tresnak: calendar, drive, Classroom eta siteak.

Chrome book gela.

IKASLEEN TALDEKATZEAK

Ikasturtean zehar ikasle talde bakoitzean antolaketa desberdina erabiliko da banaka, binaka edo taldeka lan egiteko .Irakasleen iritziz eta prozeduren arabera.

IRTEERAK

Bilboko Arte Ederretako museora edo/eta Berreginen Museorako bisitak finkoak.

Ikasturtean zehar interesgarriak diren erakusketa edo ekitaldietara irteerak egingo dira.

Taldean arabera irakaslearen lana kontzeptuen azalpenak emateaz gain ikasleak era aktiboagoan egin behar duen barneratze prozesuan gidari lana izango da , ikasgaiaren gaurkotasuna eta haiekin duen garrantziaz jabetu daitezten.

<p>EBALUAZIO-TRESNAK [ahozko eta idatzizko probak, galdetegiak, banakako eta taldeko lanak, behaketa-eskalak, kontrol-zerrendak, ikasgelako koadernoak, portfolioak, kontratu didaktikoa...]</p> <p>INSTRUMENTOS DE EVALUACIÓN [pruebas orales y escritas, cuestionarios, trabajos individuales y en grupo, escalas de observación, listas de control, cuaderno de aula, portafolio, contrato didáctico].</p>	<p>KALIFIKAZIO-IRIZPIDEAK [ebaluazio-tresna bakoitzaren pisua eta balioa]</p> <p>CRITERIOS DE CALIFICACIÓN [peso y valor de cada instrumento de evaluación].</p>
<p>a) Behaketa zuzena .Eguneroko lanaren kontrola eramango dugu : ikasleen jakin mina,interesa, gogoia,parte hartzea, prestutasuna eta lana (baikorra edo ezkorra izan den kontutan hartuz.)</p> <p>b) Ikasleen lan koadernoetan ebaluazioan zehar egindako ariketak eginda eta/edo zuzenduta eduki behar dituzte.Gai bakoitzeko eskemak, laburpenak edo mapa kontzeptualak baita.</p> <p>c) Ebaluazioan zehar lan monografikoren bat balego egiteko. Irteera bat egingo balitz harekin lotutako lan a aurkeztu beharko da.</p> <p>d) Froga idatziak edo ahozkoak eduki kontzeptualak edo prozedurazkoak neurtzekoak : bakarkako lan edo azterketak , lanen aurkezpenak edo ahozko galderei erantzun beharra.</p>	<p>a) Datu hauek ebaluazio bakoitzaren % 10 eko pisua izango dute azken emaitzan. Ebaluazioko saioen %80 ean emaitza baikorra izan behar du puntu bat lortzeko</p> <p>b) Honek ebaluazio bakoitzaren % 10- 20 bitarteko pisua izango luke ebaluazio bakoitzaren azken emaitzan. <u>Ariketak egin barik egoteak zuzenean ebaluazioa ez gainditzea dakar.</u></p> <p>c) Ebaluazioko % 10 eko balioa izango luke. <u>Lana ez aurkezteak zuzenean ebaluazioa ez gainditzea dakar.</u></p> <p>d) Azterketa guztien batz bestekoa egin ondoren 10 etik 5 eko emaitza lortu behar da gutxienez gainditu ahal izateko. Ebaluazioko %70 balio du. <u>Azterketaren batean 10 etik 3 azpitiko emaitza lortzeak ebaluazioa ez gainditzea dakar zuzenean.</u></p>
<p>EBALUAZIOAREN ONDORIOAK [indartzeko eta zabaltzeko neurriak, antolamendu-egokitzapenak eta egokitzapen metodologikoak, emaitzen analisia, plangintza didaktikoaren berrikuspenean, errekupeazio-sistema...].</p> <p>CONSECUENCIAS DE LA EVALUACIÓN [medidas de refuerzo y ampliación, adaptaciones organizativas y metodológicas, análisis de resultados, revisión de la planificación didáctica, sistema de recuperación].</p>	
<p><u>Ebaluazioa ez gainditzean errekupeatzeko :</u></p> <p>a) Azterketak gainditu barik izateagatik balitz, berriro beste azterketa bat egin beharko luke. Azterketa gainditzean (10etik gutxienez 5 lortu behar da) ebaluazioa gaindituko luke.</p> <p>b) Lan monografikoa edo lan koadernoan lana ez burutzeagatik edo ez aurkezteagatik balitz, ikasleak lana edo koadernoak berriro aurkeztu beharko luke gainditu ahal izateko.</p> <p>Errekupeazioa egin ondoren emaitza beti ere , 5 (Nahiko) izango da.</p> <p>Ikasturte amaieran :</p> <p>.Ebaluazio bat gainditu gabe : ebaluazio horren edukiak bakarrik gainditu beharko lituzke .</p>	

Gaimituko ez balu Ez Ohikora joan beharko luke ikasgai osoarekin.

.Ebaluazio bi edo/eta gehiago baditu gaimitu gabe: Ez Ohiko azterketa egin behar du , ikasgai osoko edukiak aztertuz.

Azken emaitza gaimitzean 5 (Nahiko) izango litzateke.

Gaimitu gabe geratuko balitzaio, ikasleak lan -txostena helaraziko lioke , hurrengo ikasturtean aurkezteko mintegiak zehaztutako datan

Aurreko ikasturteko Gaimitu gabea balitz :

Mintegiak erabakitako datatan beste bi aukera izango lituzke ikasleak aurreko urteko ikasgaia gaimitu ahal izateko.Azterketa horretara aurkeztu ahal izateko aurretiaz ikasleari emandako lan-txostena egin behar du. Lana egin duela ziurtatu ondoren azterketa egin dezake.

Emaitza : Lana % 45 . Azterketa %45 Jarrera %10

Emaitza beti ere 5 (Nahiko) izango litzateke

OHARRAK / OBSERVACIONES

--